



MUGAK GAINDITUZ

Lanean, aisialdian, kalean, lagun artean, eskolan... adimen urritasuna duten pertsonak gu bezalakoak dira 20

MILAR LARRAMENDI

NAHI AL DUZU BENETAN
INBERTSIO ONA EGITEA?

ERRENTAGARRITASUNA ZIURTATUTA
Batazbeste 20 URTEKO IRAUPENA



Eta orain azaroak 30a arte,
5 URTEKO BERMEA

Miele

PREZIOA:

889 €



IKUS ITZAZU GURE ERAKUSKETAN. LIBURUTEGI ONDOAN

Milar Larramendi · Xabier Munibe, 11 · Julio Urkijo, 16 · Azkoitia · Tel. 943 85 18 97

uztarria

Argitaratzailea. Uztarrria
Komunikazio Taldea. Azpeitia
Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea,
(Azpeitia, 20730)
Telefonoa eta faxa. 943 15 03 58
Posta elektronikoa.
uztarria@topagunea.com
Posta kutxa. 227, Azpeitia
Lege gordailua. SS-860/2000
Zenbakia. 122.a (2010eko azaroa)
Urtea. XII.a (1999ko azaroan sortua)
Maiztasuna. Hilabetekaria
Diseinua. Eregi Komunikazio eta
Euskara Zerbitzuak
Publizitatea. 685 730792 /
oalegria@uztarria.com
Bazkietza. 943 15 03 58
Tirada. 2.500 ale hilerro
Inprimategia. Leitzaran Grafikak
Azaleko argazkia. A. Agirrezabala
Web orrialdea.
www.uztarria.com

**Uztarrria herri aldizkariaren
laguntzaileak** (erakunde
publikoak)



Gipuzkoako
Foru Aldundia



azpeitia
udala

**Uztarriak
Bai Euskarari**

Oharra. Uztarrria
Komunikazio
Taldeak ez du
bere gain hartzen
herri aldizkarian
adierazitako
esanen eta
iritzien
erantzukizunik



2010EKO AZAROKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER? ||||||||||||



16

iritzia

Inkesta. Egunkaria,
paperean ala
Internetez? **13**

mamia

Klik! Añoi esnearen
ekoizlearekin
baserriko jardunaz **16**
Idoia Guereñu. EHAZE
antzerkizaleen
elkarteko idazkari-
koordinatzailearekin
elkarrizketa **04**
XJ auzolanean.
Sanjuandegiren
beharrei erantzun
asmoz, bi urte
lanean **24**



04



34

jakiteko

Bestaldetik. Jose
Angel Aristi
udaltzainburua **34**

Ba al dakizu Juan Mari Etxeberria apaiz
azpeitiarrak Donostiako Apaiztegian
kargua izango duela Laster? **Uztarrria**

egin zaitez bazkide Uztarrrian




943 15 03 58

**Herri aldizkariak gain, Uztarriaren produktuak ere
eskuratuko dituzu.** Uztarrria Komunikazio Taldeak orain arte
12 liburu (behekoak), **CD 1** (ondokoa) eta liburuxka biografikoak
atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen, urteko kuota barruan.



1.157 bazkide
gara dagoeneko Uztarrrian;
eskerrik asko denei.

30 euro dira urtean.
106.400 euroko aurrekontua
du Uztarriak 2009. urterako.



Liburuxka biografikoak. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre (Uztarriak hurrengo hilabeteetan liburuxka gehiago aterako ditu)

IDOIA GEREÑU ODRIOZOLA

Euskal Herriko Antzerkizale Elkarteko idazkari-koordinatzailea

“Erronka handiena jendea zaletzea da”

EHAZE elkarteak Azpeitian izango du egoitza eta bertan ariko da Gereñu lanean. Erronka berria eta proiektuz betea du esku artean. ✍️📧 Mailo Oiarzabal

Euskal Antzerki Topaketan hilean sartuta, Azpeitia euskaraz egiten den antzerkiaren erakusleio bihurtuko aurten ere. Laster, baina, urte osoan izango da euskal antzerkiaren erreferentzia, sortu berria den EHAZEK (Euskal Antzerkizale Elkarteak) herrian izango baitu egoitza. Idoia Gereñu da “elkarteko lehen langilea” eta harekin hitz egin du Uztarriak.

Zer fasetan dago une honetan EHAZE?

Orain dela hiru urte eta erdi edo, Hik Hasik udan egiten dituen uni-bertsitate topaketetan sortu zen ideia. Ikastaroak egiten ari ziren lagun batzuk elkartu ziren eta esan zuten: euskal antzerkiarekin zeozer egin behar dugu, hau de-

sastre bat da eta. Horren harira, urtero, Hik Hasiko topaketetan saiatu ziren antzerkiari buruzko elkarteratze bat egiten, eztabaida sortzeko. Hori hiru urtez egin da eta aurten, ekainaren 5ean, izan zen aurreneko batzar orokorra. Pentsari ere deitu zitzaion eta, lehen aldiz, proiektua jenderatu egin zen. Ekainaren 22an, berriz, Bilboko Kafe Antzokian jaialdi bat egin genuen, nolabait hasiera emateko.

Zergatik da ba desastrea, euskal antzerkia?

Beti esaten da kultura krisian dagoela; eta antzerkia, zinea sortu zenetik, beti esan izan da krisian dagoela. Nik uste dut antzerkia, gaur egun, egin egiten dela, eta egiten dela toki askotan. Gerta-

||| DATUAK |||||

||| **Jaio.** 1980ko martxoaren 6an.

||| **Herria.** Tolosa. ||| **Bizi tokia.**

Deba. ||| **Lanbidea.** Euskal Herriko Antzerkizale Elkarte (EHAZE) berriaren idazkari-koordinatzailea da.

tzen dena da, bakoitzak bere etxean antzerkia egiten duela, eta ez dakigula ondokoari zer gertatzen zaion, egiten duen ala ez duen egiten. Uste dut ez dagoela batere antolatuta. Profesionalena eta beste kontu bat da, baina antzerkia orokorrean hartuta, egin egiten da, eskoletan asko lantzen da gaur egun, baina Azpeitiko herriak ez daki Deban zer pasatzen den, eta Debakoak ez daki Zumaiako zer pasatzen den, eta Zumaiakoak ez daki Zarautzen zer pasatzen den. Orduan,

hain galduta dago, ematen duela ez dagoela mugimendurik. Eta mugimendua egon, badago, eta jendea eskean ari da.

EHAZEK Azpeitian izango du egoitza. Zergatik Azpeitia?

Elkartea sortu eta gero, argi zegoen egoitza bat behar genuela, toki erreferente bat, jendeak nora joan jakin zezan. Mintzolan [Villabonan] hasita geunden bilerak egiten-eta, eta pentsatu genuen hura toki polita izan zitekeela. Baina, haiek ere hasten ari dira eta tokirik ez dago. Orduan pentsatzen hasi ginen, Sindikatu Zaharrean bilera bat edo beste ere egin genuen, eta esan genuen: Azpeitia zergatik ez? Euskal Herriko Antzerki Topaketak hemen



egiten dira, beste inon ez. Historikoki badauka garrantzia bat eta, horrez gain, herriak badauka antzerkirako kultura bat; eta hori kontuan hartuta, herriak berak bulkada bat ematea elkarteari, oso positiboa zen. Udalarekin aurreneko hartu-emanak egin genituen, eskaera egin eta, printzipioz, baiezkoa eman digute. Oraindik ez da ofiziala, ez dugu ezer sinatu, baina Enparan dorretxeko hirugarren solairua obratan dago, eta horiek bukatzean suposatzen da bertara joango garela; hori ziurztatuta dago, bai.

Topaketak euskarazko antzerkiaren erreferente garrantzitsua direla esan izan da. Hori kanpotik ere hala ikusten al da?

Kanpotik ikusita, bai, Azpeitiko Topaketek izena dute, eta nik uste dut erreferente bat izan direla. Nik uste dut amateurrei eman zaiela halako bultzada txiki bat, bestela

ezer ez dagoelako. Gaur egun talde amateurrekin gertatzen dena da, eta eskolako umeekin ere bai, bakoitzak pasatzen duela urte oso bat antzerki bat prestatzen, eta behin bakarrik ematen dutela, eta akabo.

Hori izan daiteke gabezieta-ko bat, zirkuitu baten falta?

Bai. Gure asmoetako bat bada halako sare txiki bat sortzea; hirulau herrirekin hasi, eta gero ikusi zer pasatzen den..

**EHAZErentzat zeintzuk dira, epe motzera zein luze-
ra, premia nagusiak?**

Helburu nagusia da euskal antzerkia antolatzea eta bultzada bat ematea. Kontua da, hain gaizki egon dela, edozein gauza egin da, onuragarria izango dela. Hori dugu aldeko. Baina, onura den bezala, alde txarra ere badu: nondik hasi, lehenasuna zeri eman. Euskaraz egiten den antzerki guztia hartzen du barnean EHAZEK.

Oraingoz, gure egiteko nagusia Euskal Herrian euskaraz aritzen diren talde guztiekin zerrenda bat egitea izango da, umeen taldeak ere barruan sartuta. Diagnosi bat egitea eta, gero, zerrenda horrekin ikerketatxo bat egitea: zer behar dauden, nola aurreratu daitekeen, komunikazioa nola landu daitekeen. Hori da gertura begira bete nahi duguna. Horretaz aparte, beste ekimen

“Azpeitiko herriak badauka antzerkirako kultura bat”

“Antzerkia ez dago gaur egun gizartean barneratuta”

batzuk ari gara antolatzen momentu honetan, pixka bat EHAZE ezagutarazteko, izena zabaltzeko. Gertu-gertura begira pare bat ekimen dauzkagu. Bat izango da Villabonan, azaroaren 27an, I. Antzerkizale Eguna. Gero, Durangoko Azokan *stand* bat jartzeko asmoa ere badugu.

Bat aukeratzekotan, zein da gaur egun euskarazko antzerkiaren erronka nagusia?

Indarrak batzea, existitzen dugula jakiteko eta 'hemen gaude' esateko. Bertsolariek lortu dute, lehen ez zeukatena, eta hor daude, eta gizartean oso barneratuta daude. Antzerkia ez dago gaur egun gizartean barneratuta; emanaldiak egiten dira eta hama-bost pertsona joaten dira ikustera. Argi daukaguna da zaleak lortu behar ditugula, antzerkiak aurrera egiteko. Erronka handiena hori da, jendea zaletzea.✘

Iraganaren testigantzak

Iraganak, nahiz eta gure egunerokotasun ero honetan beharbada ez ohartu, beti uzten dizkigu bere igarotzearen zeinuak. Ez gara gainera museoetara joan behar beraien bila, baizik eta egunero ibiltzen garen kaleetan eta leku publikoetan beraiek irtetzen zaizkigu eta gure billa, beti hor egon diren baiña erreparatu ez dugun gauzatxoak balira bezala. General Mola Kalea dela, etxebizitzetan Frankoren erregimeneko ministroek egindako fletxak direla...

Iraganaren testigantzak positiboak edo negatiboak izan daitezke, bakoitzaren ikuspuntuaren arabera beti ere. Hil honetan ere badugu oraindik iritzi kontrajarriak sortarazten duen gertakari baten oroipena. Hil honen 20an beteko da Franko diktadorea hil zeneko 35. urteurrena.

Eta uste duzue oraindik egunerokotasuna duen gaia dela? Alemanian oraindik ere naziek egindako gehiegikerietaz hitzegiten ez dira ausartzen, are gutxiago erregimen bortitz hura sortu eta zuzendu zuen buruzagiaren aztarnak mantentzen.

Batzuek esango dute: Ez dago erromatar aztarnarik gure artean? Ez ziren beraiek ere bortitzak izan bere konkistetan? Bai, logikoki, baiña iragana aldatu nahi gabe, bada ordua leku guztietan justizia eta memoria historikoa berreskuratzeko. Eta zer da memoria historikoa? Iragana gogoraraztea baina denek ikuspuntua azaleratuz eta biktima izan zirenei merezi duten lekua ematea gure artean.

Ez da beraz kontua iragana eskutatzea, bertako protagonista guztiak gogoratzea baizik eta historia isila egin beharrean, historia justua egitea. Justizia ez da beti iristen biktimentzat, baina Argentinako eta Txileko diktaduretan egindako gehiegikerien arduradunak, edo batzuek behintzat, epaituak eta gartzeleratuak izan dira. Espainian ez da horrelakorik gertatu. Hor dago oraindik Valle de los Caidos deituriko monumentua Madril inguruan, Frankoren azken geltokia eta bere al-



markel mendizabal

III Ez da beraz kontua iragana ezkutatzea, bertako protagonista guztiak gogoratzea baizik

dekoen peregrinazio leku. Honetan ere Fraga ministro frankistak (gaur egun senataria) abian jarritako eslogana erabili beharko da: Spain is different. Desberdina da bai eta horrela izaten jarraituko duelakoan nago.

Denentzat oroimena

Gure herrian ere erregimen politiko hartako testigantzak aurkitu ditzakegu oraindik. Hil honetan Santu Guztien Eguna ospatzean hilerria gerturatu direnek izango zuten aukera bertan dagoen monumentu bitxi zein zaharkituarengan erreparatzeko.

Han aurkituko ziren gurutze handi bat daraman monumentu batekin. Ez du gaur egun lehen zeukan esanahia, baiña urte askotan Gerra Zibilean Frankoren alde borrokan hildakoak gurtzeko erabili zuten eta ahaztuak izan ziren Errepublika eta Euskal Herri independente baten alde borroka egin zutenak.

Zorionez esanahi berri horren arabera anai arteko gerra hartan hildako azpeitiar guztiak omentzen dira. Bazen garaia gure artean ere hainbeste pairatu zuten herritarrentzat ere oroimena egoteko.✘





euskara eta komunikazioa

Diseinua:

- Erakundeen irudi korporatiboa: logotipoa, papertegia...
- Katalogoak, kartelak, diptikoak, triptikoak...
- Errotuluak eta seinaleztapena
- Mailing-ak, perching-ak, parabrising-ak...
- Iragarkiak

Maitasuna eta esklabutza

Amelia, Elena, Nagore, Teresa, Mari Karmen, Gurutze, Nerea, Ana, Laura, Laila, Dolores, Daimari, Sorkunde, Galia, Nuria, Maite... kantariak, politikariak, etxeko andreak, informatikariak, dantzariak, okinak, gidariak... Gaur egun, edozer izan gintezke. Bidea, kasu askotan, ez da erraza izaten. Askotan, behar baino zailagoa. Baina lortu dezakegu.

Guztiok gara emakume, eta berdin du non, eta berdindu zer garen. Guztiok gara erasotua etengabe. Etxean. Lanean. Kanean. Hilketa, ablazioa, aurpegira azidoa botatzea... eraso gogorrek, krudelak eta onartezinak dira horiek. Baina badira askoz gutxiago ikusten, eta sentitzen, diren erasoak ere. Eta eraso horietatik, tamalez, ez gara inor libratzen.

Garai batean, sinestuta nengoen belaunaldi kontua zela. Gajoa ni. Eguneroko agertzen da egunkarietan: "gizonezko bat atxilotu dute ustez bere emaztea jo delakoan". Hori leitzen dudak bakoitzean, automatikoki albisterra sartu, eta ustezko erasotzailearen adina begiratzen dut. 18, 20, 30... oso gazteak direla ikustean, gauzak gutxi aldatu direla pentsatzen dut. Aurrera bagoaz, ez dut dudarik. Baina, oraindik ere asko dugu egiteko. Berdintasun ezak, eta emakumea gutxiesteak eragin zuzena du emakumearen aurkako biolentzian, erasoetan. Eta hor ere guztiok dugu zer egina.

Nirea zelako hil nuen. Esaldi beldurgarria. Ez dut aspaldian entzun, baina entzun gabe ere, eraso askoren atzean esaldi horren hotsa entzun daiteke. Oraindik ere maitasuna eta esklabutza bereizten ez dakienik, bada munduan.

Erakundeek behin eta berriz, erasoen aurrean salatzea dela onena esaten digute. Hildako emakumeren bat den bakoitzean gogorazten digute biktimak salaketaren bat jarrita zuen edo ez. Horrek zerbait aldatuko balu bezala. Salaketen kontua, erakundeek aur-



||||||| **ihintza agirretxe** |||||

||| **Ez dut Txiximorerik behar. Erasotzaileen aurrean ere babesten nauen gizartea behar dugu**

pegia garbitzeko tresna huts bihurtu delakoan nago. Kasu batzutan, salaketa jartzearekin gauza asko aldatuko dira. Onerako. Beste askotan, ordea, txarrerako da. Denok ez baikara berdinak, eta ez baitugu berdinkatzen. Ezta erasotzaileak ere. Salaketarik gabe ere, laguntza eska daiteke inguruan, lagun artean, familian, eta erakundeetan. Eta infernutik irten daiteke. Ondoren, salaketa jarri gero, primeran. Kasuan kasuko erantzunak eman beharra dago. Ez dut dudarik.

Super heroirik ez

Erasoen aurrean tinko eta gogor agertu behar dugu. Emakumeren bat hiltzean salatu egin behar dugu. Baina horrelako gehiago gerta ez daitezke, hezten segitu behar dugu. Gizartea ez da egun batetik bestera aldatzen, baina etengabe lanean segitu behar dugu. Erasoei aurre egiteko ez dut Txiximorerik behar. Ondo dakit noiz naizen erasotua, ez dut super heroirik behar. Behar dugun bakarra erasotzaileen aurrean ere babesten nauen gizartea behar dugu. Ondo hezitako gizon eta emakumeak. Ez beste-rik. ✘



saltzeko
erosteko
eskaintzeko
eskatzeko
aurkitzeko

...



www.iragarkiaburrak.com
txintzarri.iragarkiaburrak.com
otamotz.iragarkiaburrak.com
soraluze.iragarkiaburrak.com
elgoibarren.iragarkiaburrak.com
bidasoamedia.iragarkiaburrak.com
ukberri.iragarkiaburrak.com
oarsoaldeko hitza.iragarkiaburrak.com
tolosaldeko hitza.iragarkiaburrak.com

busturialdeko hitza.iragarkiaburrak.com
uro-la-kostako hitza.iragarkiaburrak.com
irutxuloko hitza.iragarkiaburrak.com
goierriko hitza.iragarkiaburrak.com
Iibarri.iragarkiaburrak.com
baleike.iragarkiaburrak.com
geugasteiz.iragarkiaburrak.com
etakitto.iragarkiaburrak.com

milaka bisita, egunero

zure-azoka

Erregistratu zaitez

eta jarri zure iragarkia **webgunean:**

norbanakoak
doan

enpresak
leku eskusiboa

*Jarri zure
iragarkia!*

Gainera, **ostiralero** paperezko edizioa
100.000aleko zabalkundearekin.

HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

**GORA.** Kinto bazkariko kartelak euskaraz, noski.

1945ean jaiotakoek bazkari bat eginez elkartzeko asmoa dute eta horren berri euskaraz eman dute, eskuz egindako kartelen bidez. 📌 **Uztarrria**

**BEHERA.** Erregaiaren makina eta euskara izorratuta.

Gasolindegi honetan ez dago kotxearen depositua betetzerik, ezta euskaraz aritzerik ere. Penagarria! Irakurle batek bidalitako argazkia da. 📌 **Uztarrria***



Pako Aristi.

ESANA DAGO

III “Eragin pedagogiko gehiegi sumatzen dut umeentzako ipuinetan. Umeen literaturak asko galdu duela uste dut”

PAKO ARISTI
idazlea eta kazetaria

III “Loiolako upategian gordeta ditugun liburu zahar horiek, ardo hori, kanpora atera nahi dugu”

JOSE M. ETXEBERRIA
Jesuiten arduraduna

III “Lau hilabete eta erdian zortzi txapel jantzi ditut eta neke hori antzeman egiten da”

AIMAR IRIGOIEN
harri-jasotzailea



kutxa



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Tontoena da etorkizuna

Gerra osteko gosearen berri izan dugu baina, zorionez, gosea zer den jakin ez dakigu. Gaur gosea ez, alderantziz, gizentasuna dugu arazo. Jakiak soberan eta, halere, komeni ez dena jan behar. Lehen gaizki eta orain oker.

Gerra osteko jakituria-eskasiaren berri ere izan dugu. Nork irakatsi aukera handirik ez eta ikasteko betarik ere ez; etxera bi erreal ekartzen zuena, hura katedradun. Gaur, ustez, bada non ikasia eta nork irakatsia. Motelenak ere, gutxienez, hiru hizkuntza eta lau master ditu. Lehen, jakintsu gutxi eta orain,

listo asko, baina orain ere jakintsu gutxi. Ona beti urri.

Gaur egun, haur parkeak bilakatu dira jakituriaren olinpo. Orain gutxi arteko tabernako filosofoak parkeko orojakitun bihurtu dira. Inon ez irakaskuntzaz eta medikuntzaz parke-etan adina masterdun. Interneten gainbegirada bota eta herriko mediku eta irakasle guztiak larrutzeko beldurrik ez. Profesionalek bizitza osoko jardun eta ibilian ikasi ez dutena *park-men-women*-ek hamar minutuko irakurketan dena dominatua dute. Irrati eta telebisitetako tertulikideen tankeran, gaur egungo



txetxu urbieta

gurasoek, denetaz dena dakite (edo dakigu). Parke batean mediku edo irakasle bati buruz hitz onak entzutea Lagun Onakek gola sartzea baino zailagoa da, miraria da (aupa ñaki).

Benetan dakitenek diote, ikasten zoazen neurrian ezer ez dakizula konturatzen zarela. Nire lagun Manu Maritxalarrek horregatik esango zuen aspaldi hainbeste jakiteak amorrua ematen zuela. Zertarako jakin, gero ezer ez badakizu. Tontoak jakintsu eta listoak tonto. Peditra eta irakasle lagunok, eutsi goiari.*

IKUSTEKOA!



▲ TXAKURRENTZAKO 'KOMUNA' PEREZ ARREGIN?

Txakurrek ere beren eginbeharrak dituzte eta paseatzera ateratzean aprobeztatzen dute horretarako. Jabe askok, ordea, haien kakak ez dituzte jasotzen eta, ondorioz, mokordo ederrak egoten dira Perez Arregi plazako zuhaixken inguruan. Inguruan usain txarra egoteaz gain, plaza horretan jolasean dabiltzan haurrentzat zikinkeria galanta da. 🐾🐾 Ainitze Agirrezabala*

URRIKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...



Joxe Arregi frantziskotarra

ELIZATIK KANPO. Elizaren barne gauzatzen ari diren aldaketak urruti daude eliza bera osatzen duten herritar askoren pentsaeretatik. Gizarteari begira eta gizartetik lan egin nahi duten guzti horien haserrea azaleratzen ari da. Elizatik kanpo fedea izan eta herritarren alde lan egiteko aukera asko daude, eta, nola ez, askatasun gehiagoz jokatzeko aukerak dira, elizako jerarkia eta kontraesanetatik kanpo.



izaskun egiguren



'Zaindu jarrerak!'

KANPAINA. Haurrak eta kirolaren inguruan, guraso batzuk, eredu izan beharko luketenean, kontrakoa erakusten dute. Jokabide desegoki horiek zuzendu asmoz atera da kanpaina. Helduen jarrerak hobetzeko baliogarria izatea espero da, hurrek behar bezala kirolaz gozatzeko.



Metal arloko langileen greba

LANUZTEA. Metal arloko langileek, hitzarmen duin baten alde, udara aurretik hasitako borrokaldiarekin jarraitzen dute. Espainiako enpresari ordezkariek esan berri du bizi dugun egoeratik irtekeko langileok lanean ordu gehiago sartu eta soldata baxuagoak irabazi behar di-

tugula. Hori da, ulertu dudanez, enpresariaren mozkinak etenik gabe igotzen jarraitzeko bide bakarra. Ekonomia aurrerakoi bat izateko bidea, ordea, langileen lan-baldintza egokiak, formakuntza aukera berrituak eta soldata duinak izatetik abiatzen dela iruditzen zait.*

INKESTA

egunkaria, paperean ala internetez?

Ainitze Agirrezabala

MARIKARMEN AGIRRE

langilea



"Askoz ederragoa da egunkaria paperean irakurtzea.

Egunkaria hartu eta tabernan edo etxean, kafesne bat hartzen duzun bitartean egunkaria lasai ederrean irakurtzea bezalakorik ez dago. Ordenagailuak, azkenerako, tontotu egiten du".

SONIA ORBEGOZO

langilea



"Paperak bere xarma du, baina eskaintzen duen aukera zabala eta

erosotasunagatik Internetez irakurtzeko ohitura dut. Uztarrarian egunero sartzen naiz eta Diario Vasco ere leitzen dut".

BEGOÑA AROZENA

langilea



"Dudarik gabe paperean. Erraztasuna ematen dit

umeekin parke batera joan eta han lasai irakurtzeko. Etxekoek badute ohitura Internetara erabiltzeko, baina nik neuk ez".

ROSA ALDASORO

erretiratu



"Internetara zero, ez dugu batere erabiltzen. Paperean

irakurtzen dugu egunkaria. Egunero erosten dugu *Diario Vasco*, baina erdi bilbotarra naiz eta aukeran *Deia* nahiago".*

Disidentzia ezabatuz

Azken aldian bi azpeitiar ditugu berri iturri gure artean, biak motibo guztiz ezberdinengatik; baina, funtsean, agintekeriaren eraginez jazarriak. Justiziarren erabilera interesatu eta makurratgatik bat, eta dogmakeri itsuagatik bestea.

Udabiltzaren auzia urriaren 25, 26 eta 27an jarraitu zuten Auzitegi Nazionallean, eta bertan 20 auzipetuen aurka aritu ziren, (in)Dignidad eta (in)Justiziakoekin eginiko akusaziopean. Akusatuen artean Miren Odriozola azpeitiarra dago, eta gogoratu behar da hura, beste kide denak bezala, herritarrek hautatutako hautetsia dela. Auzipetuek diote eurek lan politikoa, kulturala, soziala eta abarren aldekoa soilik egiten zutela. Udalbiltza eta ETaren arteko loturarik ezin izan dutela frogatu onartu dute perituzkoen. Hala ere, 10 eta 23 urte bitarteko espetxe zigorra eskatzen jarraitzen du, erakunde paramilitar horrek.

Ekzer abertzalea jokoz kanpo edukitzea komeni



higinio oartzabal

zaie indar espainiarrei. Horrela lortu ahal izan dute Eusko Jaurlaritza, eta horrela lortu nahi dituzte aldundiak eta udalak ere hurrengo hauteskundeetan. Hori zilegi litzateke, noski, arau demokratiko bidez lortuko balituzkete, eta ez amarruen bidez.

Joxe Arregi azpeitiar fraidea ere denon ahotan dabilkigu. Bere kristau pentsaera ireki eta askeak topo egin du, aspaldiko urteetan, Eliz hierarkiari daraman ildo eskuin muturrekoarekin. Joan Paulo II.a Aita Santu izendatu geroztik, 1978an, Vatikanoko II.a kontzilioaren norabideari ziaboga hartu eta kontrako bidean doala uste dugu eliztar askok. Horren eragina orain ari da nabaritzen euskal Eliza, gotzain berrien izendapenarekin. Isiltzeko esan diote Arregiri, eta berak bere kristau pentsaerarekin leial izanik, ezetz esan du; eta bere bizitza erabat irauliko duen erabakia hartuaz, fraidetza utzi du.

Norbaitek esan du Elizak teologo bat galdu duela, baina herriak pentsalari bat irabazi.*

galdetzen hasita, soresuko aparkaleku berria ia hutsik egoten dela ikusita, zenbaterainokoa zen beharra? Uztarrria

Eztarri urratuen oihuak

Ekonomia arloko manifestazio asko kubritzea tokatu zait azken hilabeteetan, eta tokatuko zaizkit aurrerantzean ere. CCOO eta UGT antolatutakoetan, bozgoragailua daraman gizona arduratzen da lehen oihua egiteaz. Inprobisazio gutxi, paperean idatzita eramaten ditu egin beharreko builak ere. Jendetsuak izan dira ELA eta LAB metaleko lan itunaren alde egindakoak. Haietako batean ikusi nuen lehen aldiz pankartarik gabeko manifestazio bat. Despistek. Baserritarrenek pena ematen dinate, aitonak kazetariei beren arazo ekonomikoekin berri ematen ikustea ez da eroso.

Azkena joan naizenean, eztarri urratuko jendea bildu zen: erretiratuak eta pentsiodunak. Helburua Espainiako Gobernuak egin nahi duen erreformaren eta pentsioen izoztearen aurka daudela adieraztea. Urtea amaitu baino lehen onartu nahi du Zapaierok erretiro adina 65 urtetik 67ra atzeratzea. Ez dakit benetan zein diren Madrilen dituzten asmoak.



miren garate

Aldaketarik ezkorrena saldu eta azken unean atzera egitea izan daiteke estrategietako bat, jendea baretu eta botoetan galera handiegirik ez izateko.

Alabaina, kalteak ekarri, ekarriko ditu erreformak. Adinak sortu arren polemikarik handiena, kotizazioetan proposatutako aldaketek ere badute beren garrantzia. Gaur egun azken hamabost urteetako oinarria kontuan hartuta kalkulatu da erretiro pentsioa. Aurrerantzean hogeitabi urteetako geroztik, azken urteetan izaten baitu soldatarik handiena langileak. Pentsio pribatuen negozioa sartzen da jokoan hor. Haietakoren bat izateko modua duena ongi, eta besteak hor konpon. Hego Euskal Herrian 300.000 ei dira pobrezian bizi diren pentsiodunak. Urrun ikusten dugu lan merkatutik alde egiteko adina, baina eztarri urratuen artean gazteen ahots sendoak tartekatuz gero hobe, geuk ere pentsiodun izateko aukera izan dezagun noizbait.*

OTSOBELTZ



andoni salegi



Hitanoa



|||||||joxin iturriotz||||

Hogeita bat urte izango nituen. Semi-narioan nengoen, eta Antiguan bizi ginen, eliza ondoko etxebizitzan. Zortzi edo hamar apaizgai ginen, eta hiru apaiz ziren gure arduradun. Hasiera-hasieratik esan ziguten kontrolatu baino, gure bidean lagungarri izan nahi zutela. Eta hizkuntzaren aldetik hika egingo genuela erabaki. Apaizgaien artean gehienok hitz egiten genuen euskaraz, eta ez zekitenek ikasten egiten zuten euren ahalegina. Hika egiten genion elkarrri. Baita, erabakiarekin bat, apaizgaiek arduradunei ere.

Ospitalean nengoen, hernia batetik operatuta. Apaiz horietako bat, Manolo Odriozola *Xuela* urrestildarra gelan zen nirekin. Baita gure aita zena ere. Nik zuka egiten nion aitari. Aitak, errespetuz, zuka egiten zion apaizari, *Xuela*-ri. Nik, ohitura nuen moduan, hika Manolori. Hor katea apurtzen zen, nolabait esateko. Aitak harrituta begiratzen zidan, apaizari hika egiten entzuten zidan bakoitzean. Berak ziur aski berorika naturalago egingo zion apaizari, baina ordurako ohitura hori galtzen hasia zegoen. Nola zen posible hogei

urteko umemoko batek hain errespetu gutxi izatea apaizarekin?

Baina gu horrela ohitu ginen, apaizen beraien eskariz. Errespetuz zuka egin behar dela esango dute askok, distantzia jarritz. Guretzat konfiantza kontua zen hika egitea. Eta konfiantzaz aritu ginen, bai geure artean, baita apaizekin ere. Konfiantza baitzen lehenesten genuena. Baita apaizekiko harremanetan ere. Eta asko lagundu ziguten, geure burua argitzen, bidea egiten. Eta batez ere, gure lagun izan ziren. Lagunak izan ginen.★

||||IRITZIA||||

Azpeitiko parking-a, herriko plaza

Azpeitian Zer?’ irailenko udal aldizkarian, Iñaki Etxezarreta zinegotziak herritarren eskaerei erantzunez, Azpeitiko Enparantza Nagusia oinezkoentzat izateko iradokizunari honela erantzuten dio: “Azpeitiar asko ez daude alde”. Hau da, jendeak ez duela nahi herriko enparantza oinezko edo oinezkoentzat jartzea.

Horrek zer esan nahi du, jende horrek nahiago duela enparantza kotxeak aparkatzeko erabiltzea?

Gaur egun, guztiok onartu behar dugu aparkaleku gutxi dagoela hirien barruan, baina irtenbide penagarria eta harrigarria da, Azpeitian, herriko enparantza erabiltzea berebil, auto, kotxe eta motordun garraioentzat, parking bezala. Ez dakit hori egiten duen beste herririk geratzen den. Berez, enparantzak jendearen bilgune eta aisialdirako beharko luke izan, eta ez kotxeen parking edo bilgune izateko. Alde horretatik, herria atzera ari da geratzen nabarmen. Batez ere, umeengatik: kotxeak aurrera eta atzera ibiltzen dira martxan, eta ume koi-

taduak, arriskuan, eta gurasoak, urduri, beldurrez.

Orokorrean, herriko jendeak, oporretara joan ostean, ohitura dauka esateko zein ondo ibili den toki batean edo bestean, eta “kotxea ez dute ukitu ere egin” oporraldi luzean: benetan gauza onuragarria. Zergatik ez dute gauza bera pentsatzen herrian daudenean? Bada jendea eguerdiko kafetxoa hartzera ere, 220 metro egiteko, “derrigorrez” autoa behar duena, eta, noski,

||||Herriko enparantza motordun autoentzat parking bezala erabiltzea penagarria da

||||Berez, herriko enparantzak jendearen bilgune eta aisialdirako beharko luke izan

kotxea gaizki aparkatuta uztea batere axola ez zaiona; eta, gero, munizipalekin istiluan. Ederra izango da, ba, kafea lasai asko hartzea!

Era berean, kirol asko egiten duten batzuk ere, leku guztietara autoz mugitzen dira, atez ate: farmazia, banketxe, azoka, haur eskola... Enparantzaren ez badute aparkatzeko tokia bilatzen, kioskoari bi edo hiru buelta eman. Zer da, ba, enparantza, zirkuitua, ala?

Azpeitian bidegorri batzuk eginak dira, baina ez dirudi momentuz, arrakasta handirik izan dutenik. Badaude, ordea, gure inguruan herri asko, hainbeste obra egin gabe ere, bizikleta ugari erabiltzen dutenak herri barruan mugitzeko; ahal dutenek eta ahal duten moduan, noski. Kontua da, bakoitzak bere ahalegina egin behar duela.

Eta, Udala Alde Zaharrean oinezkoen izenean egiten ari den obra izugarria zertan geratzen da? Bakar-bakarrik bi kale eta erdi oinezkoentzat? Eta bakar-bakarrik ordu gutxi batzuetan?

Bertan daukagu eredu argi eta garbia, Perez Arregi plaza: handik kotxeak kendu direnetik, askoz ere jende gehiago biltzen da bertan. Gaur egun, Erdikalean kotxea aparkatzea ia inori ez zaio bururatzen. Izan ere, Udalak bere lana ondo egin zuen bere garaian. Eta, ildo horretatik lanean segitu beharko luke.

Bestelako gauza badirudi ere, plaza kotxezaleentzat itxiz gero, beste abiapuntu batean kokatuko ginatke, oinezkoak erakartzea lortuz, beste herrietan gertatzen den bezala.

Bada garaia, herriko agintariek benetako arreta eta ardura hartu, azterketa sakona egin, eta irtenbideak bilatzen hasteko, pausoz pauso hobekuntza etengabea eta iraunkorra lortzeko: enparantzaren kotxerik ez sartzea. Espero dugu oinezkoen hain oinarritzko eskubide hau, laster iristea, autoak kendutako lekua berreskuratuz. Irudikatu zer izan litekeen.★

|||||||luis gurrutxaga||||
(Alde Zaharreko bizilaguna)

Bitartekorik gabe

Norberak ekoitzitakoa norberak saltzea du helburu Joxi Azpillagak. Eguneko esne pasteurizatua saltzeko makina jarri berri du. 📌👁️ Ainitze Agirrezabala



▼ 33 BEHI.

Errezilgo Añoi baserriko ukuiluan 33 behi ditu Azpillagak, duela urte batzuk baino 60 buru gutxiago. Hura ez zela "bidea" dio: "Gero eta eredu intentsiboagoa zen eta horri guztiari buelta eman, eta lehengo eredura bueltatu behar genuela ikusten nuen, gure gurasoek egiten zuten eredura, baina gaur eguneko bitartekoekin".



▲ DESINFEKTATZEKO, IODO.

Egunean bitan jeitzen dituzte behiak eta bakoitzak, gutxi gorabehera, 25 litro inguru ematen ditu egunean. Biltzen hasi aurretik iodorekin desinfektatzen zaizkie titimuturrak.

▼ JEIZTEKO MAKINAK.

Orain arte lparlati ematen zion esne guztia, eta aurrerantzean ere hari emango dio saltzen ez duena. Baina, denborarekin, dena zuzenean saltzea du helburu Azpillagak.





▲ BEHI PINTOAK.

Holandako frisiar arrazako esne-behiak, behi pintoak, ditu Azpillagak ukuiluan. Haiekin gurutzatzeko, berriz, zezen pinto bat eta blonda edo limusina arrazako zezen gorri bat ditu. Lehen, gurutzatzeko zezen pintoak baserrian edukitzen ez zuten uzten, hazi saltzaileen intereserako.

► PASTEURIZAZIOA.

Esne gordina pasteurizatzeko nahikoa da 72 gradutik 76ra artean hogeitasegundo berotu, eta bat-batean lau gradutara pasatzea. Horrek bakteriatxarrak hil, eta esnearen propietate on guztiei eusten die. Bi minutu besterik ez du irauten prozesu horrek. Argazkian, esnea pasteurizatzeko makina.



▲ 20 URTE UKUIL

Azpillagak betidanik garbi e baserritik bizi nahi zuela. D 1990ean, anaiarekin ganad zuen. Duela bost urtetatik b bakarrik darama guztiaren



▲ INBERTSIO HANDIA.

Esne makina martxan jartzeko esnetegia eraikitzeaz gain, esnea poltsaratzeko makina erosten "inbertsio handia" egin behar izan du Azpillagak. Argazkian, esne pasteurizatua tankera pasatzen, ondoren poltsaratzeko.



UAN.

eduki du
duela 20 urte,
utegi egin
berak
ardura.



▲ **MERKATUA ZABALTZEA XEDE.**

Astean hirutan jaisten da Azpeitira Azpillaga poltsaratutako esnea hainbat saltokitara banatzera. Azpeitiko Eroskin, Etxaun kutixi dendan, Egaña gozotegian eta Eroskik Azkoitian duen saltokiko Kutixi dendan erosi ahal da eta pixkanaka merkaturu zabaltzeko asmoa du. Poltsetan saltzen den esnea sei eguneko epean kontsumitu behar da.



▲ **UDALETIK ERANTZUNIK EZ.**

Eroskik herrian duen saltokian jarri du Añoi esnearen ekoizleak lehen makina. Azkoyen enpresa nafarrak eginiko vending makina da eta ahal bezain lasterren jarri nahi du bigarrena, dagoeneko prest baitu. Azpeitiko Udalarai duela urtebete eskatu zion herriko plazan jartzeko baimena; Azkoitikoari aurtengo udaberrian. Oraindik, ordea, ez du ez batoren ez bestearen erantzunik jaso.*

Ikusten al nauzu?

Adimen urriko pertsonak gizartean integratzeko traba ugari izaten dute, baina Atzegiren mende Erdiko historian urrats ugari eman da. 📎📺 Ainitze Agirrezabala

Asko begiratu arren, ez nauzu ikusten, zioen Atzegiren (Adimen urriko pertsonen aldeko Gipuzkoako Elkartea) 2007ko sentsibilizazio kanpainaren leloak. Adimen urritasuna duten pertsonen begiratu egiten diegu... batzutan, asko begiratu ere, baina, benetan ikusten al ditugu? 'Desberdinak' diren horiek benetan nolakoak diren jakiteko esfortzurik egiten al dugu?

Mende erdia bete da adimen urritasuna dutenei lagundu asmoz senide talde bat lan egiteko bildu eta Atzegi sortu zutela. Urte guzti horietan arantzaz, mugaz eta oztipoz betetako bidean lan asko egitea egokitu zaie guraso askori. Batzuen borrorak, ordea, ondorengoek gizarte honetan egin beharreko ibilia erraztu du.

Duela 50 urte, 1959an, jaio zen Juan Ignacio Medina, adimen urrikoa. Bere ama Santa Larizgoitiak kontatzen duenez, "halako pertsonentzat eta haien gurasoentzat ez ziren garai xamurrak, pertsonak ez balira bezala, ezkutatuta etxean izaten baitzituzten. Kultura hori zegoen atzeratuekiko". Juan Ignacio beraien laugarren seme-alaba zen, eta garai

Atzegiren
mende erdia
ospatzeko argazki
erakusketa izango
da Betharrametan,
azaroaren
2tik 6ra

haietan erditzean jakiten zuten mutila ala neska, eta nolakoa zen: "Juan Ignaciok jaiotzean arazo asko –hankatxo bat okertuta– zituen eta segituan ingresatu zuten. Nire gizonak ikusi zuenean, berriz, hura disgustua hartu zuena. 20 kilo galdu zituen". Orduan, atzeratuez inolako informaziorik ez zegoela eta, halakoekin aditua den Jesus Ganzarain medikuarengana eraman zuten, Donostira. "Gainontzeko umeekin jolas egin zezan kalera ateratzeko esan zigun. Kasu egin nion, ez

nuen etxean ezkutatu. Heziketa aldetik ere, Javier eta Arantxa seme-alabak bezala tratatu izan dut. Errieta egin behar bazen errieta egin, gauzak erakutsi... Arruenera enkarguak egitera ere joaten zen. Eta, kalean hala esaten zidaten, zerbait gertatzeko ere, bakarrik nolatan bidaltzen nuen. Beheko harategira ere bai. Opiltxo bat txorizo pixkatekin ematen zioten igoal, eta kontentu etortzen zen oso. Bere erara moldatzen ere utzi behar zitzaion".

Eskolan hasteko trabak

Eskolan hasteko garaia heldu zenean, aurrena Jesuitinetara joan zirela adierazi du. "Gizonak, pazientzia handiarekin, zenbat joan-etorri egin ote zituen han gora, Jesuitinetara. Batzutan, zuzendaria falta zelako, hurrena ez dakit nor... trabak besterik ez zizkiguten jartzten, ez zuten onartzen. Azkenerako, nazkatu zuten eta hala esan zien nire gizonak: 'zuek mojak? Abitua bakarrik duzue'. Hango ezezkoa jasota, Miserikordiarra joan ziren eta han "oso-ondo" hartu zutela dio.

Atzeratuen eskola sortzeko lan puskat egindakoa da Larizgoitia. "Sanjuandegin, ▶



Txolarteko taldea eta gaztetxeko hainbat lagun Orkatzen. Txolartekoak arratsalde pasa gaztetxean izan ziren lehenago. **Oihane Iparragirre**

orain Zaldiko saltokia den lekuan, tailertxo bat jarri genuen. Mahaiak eta aulkiak genituen, eta baita bazkaltzen emateko sukaldari bat ere. Umeek han pasatzen zuten eguna. Behin ume guztiek mahai gainera igo behar izan zuten, euri asko egin eta barruraino ura sartu baitzen. Hura, ordea, "txiki geratu" eta "beste zerbait egin behar zela pentsatu" zuten. "Herriko ama batzuk elkartu eta Donostiko elkartearekin batera, lurrak erosi eta San Migel Patronatua egiten hasi ginen. Baliabiderik ez zegoen, eta obrarako zementua eta burdina lortzeaz geu arduratzen ginen. Dirua biltzeko ere alde guztietan eskean. Santotomas batzutan udaletxeko arkupetan postua jarri genuen. Txorizoa, ogia, patata-tortilak... dena debalde lortu genuen eta 25.000 pezeta atera genituen. Eskola zoragarria egin genuen". 21 urte arte ibili zen Patronatuan, ondoren Gureakek Lasaoen duen tailerlean hasteko: "Trenean joaten zen eta deskuidatuta, Zumaiaraino joandakoa da". Gaur egun Azkoitiko Gureaken dabil Madina.

Maiatzaren 8az geroztik etxean dago Juan Ignacio, bajaran. "Sokatiran zebilela erori eta

aldaka hautsi zuen. Realzalea da oso, eta ebakuntza egin behar zion sendagileari ere zer futbol taldetakoa zen galdetu zion. Athleticetxekoa zela, haren erantzuna. 'Ba, zuk ni ez nauzu operatuko', bota zion Madinak.

"Bizitza normala egiten du gure seme honek. Ez dakizu zer kontentu nagoen berekin. Kariñosoa da oso, egun guztia muxuak eman eta eman pasatzen du. Juan Ignacio da nire bizipoza. Baina beti badu kezka bat: 'Ama, zer egingo dut nik zu hiltzen zarenean?', galdetzen dit".

Antxieta bizileku

Adimen urritasuna duten pertsonen kargu egin ezin diren familien kasuan, aukera egokia da Atzegik Antxieta etxean eskaintzen duen etxebizitza tutelatuaren egoitza zentroa.

Gureakeko Babestutako Tailerra eta Txolarte taldeaz gain, adimen urriko eskualdeko pertsonentzako Antxieta etxea eraberritu eta 2007az geroztik lehen bi solairuetan Gureakek kudeatzen duen eguneko zentroa eta gainontzeko lauretan, Atzegik kudeatzen duen egoitza zentroa eskaintzen dituzte.

Jaxinta Tamayo izatez zestoarra da, baina 2008az geroztik Antxietan bizi da. Antxietako etxebizitza tutelatuaren arduradun Iruñe Book adierazi duenez, "Jaxintaren etxeko egoera zaildu egin zen eta, orduan, egoitza zentrorra bizitzera etortzeko erabakia hartu zen". Jaxinta Aste Santuak arte Gureaken lanean aritu bada ere, ordutik eguneko zentrorra joaten da. "Fisikoki, Gureakeko lana manipulatzeko gaitasuna bazuen, baina ez zuen arretarik jartzen. Aspertuta zegoen hango egitekoarekin eta Gureak utzi eta eguneko zentroan dabil orain".

Pisu hauetan egoteko betebeharreko baldintzetako bat "eguneko jardueraren bat izatea" da. Antxietan bizi diren hamasei lagunetatik sei eguneko zentroan daude eta gainontzekoak Gureakera doaz. "Hau ez da erresidentzia bat, hemen ez dugu ordutegirik. Asteburua pasatzera familiakoekin joan daitezke eta zerbitzua urte osoan ematen ez dugunez, gabonetan, udan eta Aste Santuetan itxi egiten dugu. Nolanahi ere, familiarik ez dutenei lekua bilatzeaz Atzegi arduratzen da".

► Booren esanetan, “gure printzipioen araber, kalitatezko bizimodua” dute. “Bizitza ahalik eta independenteena izateko, bakoitzaren beharren arabera laguntzak jartzen ditugu, betiere haien izaera eta nahiak asko errespetatuz. Beraien etxea da eta gustura egon behar dute, gu gure etxean bezalaxe”. Antolakuntza aldetik, duela gutxi arte planak begiraleek beraiek antolatzen zituztela dio, baina orain horretarako inizatiba beraiek ere badutela. “Jaxintak, esaterako, Bisbal ikustera joan nahi zuen eta etxekoan artean proposatu ostean, taldetxo bat BECera joan zen”.

Txolarte, aisialdirako aukera

Iñaki Badiola azkoitiarra da eta Txolarte aisialdi taldeko ekintza kultural, kirol jarduera eta bestelako ekintzetan parte hartzen urteak darama. Haren koinata Jaionek kontatu duenez, “oso gustura” joaten da Txolartera eta baita oportetara ere. “Gaizki portatzen denean zigor bezala ez dela joango esaten diogu eta horrek min ematen dio”.

Txolarteko begirale Oihane Iparragirre eta Esti Zabalarren esanetan, “gizartearen pentsatzeko, sentitzeko eta jokatzeko erakaldak jarraitzea dugu helburu”.

Hezkuntzan ere borrokatu beharra

Azken mende erdian, hezkuntzaren arloan “beldurtzeko aurrerapausuak” eman direla dio Esther Olaizolak. Hamalau urteko alaba eta bederatziko semea ditu, Lander, adimen urrikoa. “Umetan, eskolatik Aspacera joaten ginen urtean behin, kantatzera. Oraindik go-goan ditut hango irudiak, haien egoera, baztertua bezala, denak zaku berean sartuta. Oraingo imajina bestelakoa da, zorionez”.

Lander Uriak Ikasberrin ikasten du eta Haur Hezkuntzako azken urtea errepikatu bazuen ere, Olaizola “oso gustura” dago, semeak “lehenengo mailarako idazten eta irakurtzen ikasi” baitzuen. “Eskola ordu guztietan hezitzaile bat du, eta ordu batzutan gelatik ere ateratzen dute, hainbat gai heziketa bereziko irakaslearekin lantzeko. Antolakuntza zoragarria da”. Semearen heziketan, “jardunaren poderioz gauza asko lortzen” dela dio:



1. Jaxinta Tamayo Antxieta etxeko bere logelan ohea egiten. **2.** Santa Larizgoitia eta Juan Ignacio ama-semeak, beraien etxeko sukaldetan. 50 urte daramatzate elkarren ondoan.

3. Iñaki Badiola Goitia, Txolartetik Galiziara egindako bidaian. **4.** Esther Olaizola eta Lander Uriak ama-semeak, Enparan dorretxe ondoko zubian.

“Lanak oso ondo egiten ditu eta ume lasaia da oso, baina gainean egon beharra dago”. Landerrek duen “gela ikusgarria” dela gaineratu du: “oso-ondo onartzen dute, elkar errespetatzen dute, beste bat bezala da”.

Ekonomia krisia medio, ordea, gauzak lortzeko bidean aurrera egin beharrean atzera egiten ari garela dio Olaizolak. “Ikastolan logopeda eta fisioterapeuta saioak jasotzen ditu eta laguntza horietan murrizketa handiak egiten ari dira gobernutik eta nik hori ezin dut onartu. 50 urteotan lortzea kostatu zaiguna

eta gero, ezin da onartu pauso txikiena ere atzera egitea. Murrizketa horien kasuan ikastolak berak bilatu behar izan du konponbidea eta ni gustura geratu naiz, baina hori ere ez da kontua”.

Sarritan, gauzak nola egin behar diren-eta, “guk beraiei erakutsi beharrean, beraiek erakusten digute guri. Pertsona bezala asko sentibilizatzen zaitu eta oso aberasgarria da. Zer da ba, bizitza honetan nahi duguna? Perfekziorik ez dago. Daukazun horrekin aurrera egin eta bizitzen ikasi behar da”.*

IRENE ALTUNA
LORADENDA
Loiola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87
www.ialtunadenda.com


ORKATZ KULTUR ELKARTEA
Erdi Kalea, 24 • Tel. 943 15 00 06


Aiertza Autoak
CITROËN 943 811 915 - AZPEITIA
aiertzaautoak@telefonica.net

‘Pauso Berriak’ ekimena

Adimen urritasuna duten pertsonen lan munduan ateak zabaltzeko eta enpresetan praktikak egiteko aukera eskaintzea du xede. Programa pilotu horretan Ander Alberdik eta Igor Book hartu dute parte.

Gureak Taldeak eta Atzegik elkarlanean ‘Pauso Berriak’ programa jarri zuten martxan, iragan martxoaren 23an. Atzegiko koordinatzaile Oscar Carcedok adierazi duenez, “adimen urritasuna duten pertsonen lan munduan ateak zabaltzeko eta enpresa arruntetan lan praktikak egiteko aukera eskaintzea du helburu programak. Gisa horretan, urritasuna duten pertsonen lan egiteko duten gaitasunaz gizartea sensibilizatzea eta kontzientziaztea lortu nahi da”.

Carcedoren esanetan, “programa pilotu bat denez, batez ere, okupazio araudira bideraturik daudenei zuzenduta dago, oraindik lanean hasi ez diren gazteei, edo Gureak tailerlean lana egin, baina ekintzaz aldatu nahi dutenei”. Administrazio Publikoan nahiz Erakunde Pribatuetan, lan profil desberdinetan, dihardutela

azaldu du: Zumaiko gerontologikoan, Poliklinikan, Udaletan, Deustuko Unibertsitatean, Kutxa Espazioan, Teknikerren...

Brigadan eta igerilekuan

Ander Alberdik 18 urte arte –orain 29 ditu- Karmelo Etxegarain ikasi zuen, ondoren Azkoitiko Gureak tailerlean lanean hasi. “Kotxeko bozinak eta intermitenteak muntatzen aritzen naiz”, dio, Gureaken duen betebeharrak galdetuta. Uztailean, ordea, ‘Pauso Berriak’ ekimenari esker, Azpeitiko Udaleko brigadan hasi zenean, urria bukaera arte. “Oscarrek deitu zidan Atzegitik, Udalean lanpostu bat sortu zela eta hasi nahi nuen galdetuz. Nik baietz, esperientzia berri bat bezala gustura ekingo niola. Lana eskainiz nirekin akordatu izana pozgarria izan da”. Brigadan goizez aritzen zen, eta arratsaldez

Gureaken. “Zezen-plazako eta Loiolako bankuak, zakarrontziak, barandillak, Betharrametan lurreko marrak pintatzen aritu naiz... Kurioso pintatzen nuen, eta lankideak ere oso jatorrak ziren”. Brigadako lanean Gureakeko begirale baten babesa izan du, lana nola egin erakusteko.

Brigadako egonaldia bukatuta, hil honetan igerilekuan hasi da lanean. Muskulazio gelako makinak garbitzea, takilak kontrolatzea, edarien makina betetzea dira Alberdiren eginbeharrak.

Baina, Anderren bizitzan dena ez da lana. Telebista kontuak aitatuta, belarririk belarrirainoko irribarra ateratzen zaio. “Antzerkia oso gustuko dut. *Cuéntame, Gonenkale, Aguila Roja*... ikusten ditut. Azken telesail horretan ateratzea ikaragarri gustatuko litzaidake. Bi urtetan antzerki eskolan ibili izan naiz, baina aurrean talde-

rik ez da osatu. Antzerkian hastera animatu nahi dut jendea!”.

Zumaiako geriatrikoan

Igor Book, oraingo, ez du Gureak tailerra ezagutu. Iraurgin DBH bukatu eta 18 urterekin Zumaiara joan zen, ‘Zeregin Ikaskuntza Gelak’ deiturikora. Igorren arreba Irunek azaldu duenez, “adimen urritasuna duten pertsonen bizitza autonomoa egiten erakusten diete han: irakurketa eta matematikak lantzeaz gain, tailer bat dute enkuadernazioa eta eskulanak egiteko; sukalde bat jatekoa prestatu eta garbigailua jartzeko ikasteko eta baratze bat ere bai”. Hiru urtez ‘modulo’ hori ikasten aritu ostean, bi hilabeteko praktikak egin beharra zituen: “Normalean, lehen praktikak Gureaken egiten ziren, baina guk ez genuen Igor hara bidaltzerik nahi. Gureak gero ere hor egongo zela genion. Esan nahi dut, laguntzaile bereziekin beti, baina gainontzeko hurrek bezala egin izan ditu gauzak gure anaiak: eskolara joan, Itsasi dantza taldean ibili, Zapo-Txokora, saloiko dantzetan ibili da Orbegozorekin... Gureaken hasi baino lehenago, beste zerbait nahi genuen guk Igorrentzat”. Zentzu horretan, borrokatzearen poderioz, Igor Boo etapa berri bati ateak irekitzeko mugarriz izan dela esan daiteke.

‘Pauso Berriak’ medio, Zumaiako gerontologikoan dago praktiketan, urtebeterako. “Ilusio handia dut lanerako”, dio Igorrek. “Aitona-amonen baberoak doblatzen ditut, ekintza desberdinak –meza, bingoa, zinema...- burutzeko gela egokitu, sintrom analisien emaitzak jasotzera ambulatortzera joan... Auxiliaren traje zuria, takiletako giltza eta eraikin barneko ateak irekitzeko txartela eman zidatenean sekulako poza sentitu nuen”. Iruneren esanetan, “praktiketan hasi bezperan, nerbio handiak zituen eta negar pixka bat ere egin zuen. Hala esaten zuen: ‘Nik ez dakit lanean’. Baina, orain oso-ondo dabil, oso-gustura”.*



Ander Alberdi Udaleko brigadan pintore lanak egiten. Uztailetik urria bukaera arte aritu da eta hil honetan, igerilekuan hasi da lanean. Igor Boo Zumaiako geriatrikoan dago praktiketan. Argazkian garbategian izarak tolestean.

Auzolanean gogor

Bi urte dira XJ auzolanean sortu zutenetik. Ordutik goraka doa taldea, gauza berriak prestatu eta auzoaren beharrei erantzuna ematen saitzen. 📌📍 Xabier Otamendi

Azpeitian beti festetan zaudete". Azpeitiarrei askotan aurpegiatzen zaien esaldia da horrakoa. Festa asko antolatzen direla iruditzen zaio jende askori. Santotomasak, Sansebastianak, Karnabalak, Elkartasun Eguna, Gaztetxearen Urteurrena, Saninazioak, Garagardo Azoka, Ardo Eguna... Badira festa gehiago ere, eta azken urteetan gorakada handia egiteagatik gehien nabarmendu direnak, Sanjuandegi edo Xanjuandeiko Festak dira. 2008tik aurrera indar handia hartzen ari dira, eta horri esker, azpeitiarrek festa egun gehiago apuntatu dituzte beraien parrandako agendan. Baina, festa egun horiek ez dira parranda egunak bakarrik, ez behintzat XJ auzolaneko kideentzat. "Urte osoan egiten denaren isla izatea" nahi dutela dio Aitor Zinkunegi taldeko kideak.

Duela bi urte, pasa berri ziren festen inguruko balorazioa egiten ari zirela, gauzak oso ongi joan zirela ikusita, behar-beharrezkoa zela Auzo Elkarte bat pentsatu zuten Xanjuandegi bizia emateko. Horrela, pixkanaka-pixkanaka, gauzak antolatzen hasi ziren urtean zehar. Festei garrantzi handia ematen diote, baina baita urte osoan zehar auzoak daukan bizinari ere.

Festak antolatzen aspaldi hasi ziren auzoan. 1972an egin zituzten lehenengo aldiz Txoko tabernan bilduta zeuden auzotarrei bururatu zitzaizkion. Etxez-etxe dirua eskatzen ibili ziren festak antolatzeko, trikitaliak, hau-



AuzoRock jaialdia antolatu zuten irailean.

rrantzako jolasak eta beste zerbait prestatuta, jende piloa agertu omen zen. Unai Etxanizek sei urte daramatza Festa Batzordean, eta Aiora Zenitagoiak, berriz, bost. Gaur egun XJ Auzolaneko kideak ere badira. Duela hiru urte ingurura arte beti berdina egiten zela diote biek. "Festak antola-tzeari uztekotan ere egon ginen. Udalaletxekoei esan genien beraiek antolatzeko, baina geuk jarraitzeko esan ziguten", dio Zenitagoiak. "Jendea erre-ta" zegoela adierazi dute, baina lagun gehiago hasi ziren festei indarra emateko asmoarekin lanean, eta 2008ko ekaineko festetatik aurrera antzematen ari da hori.

Orain dela gutxi arte, bi talde bezala funtzionatu dute, baina zentzu gehiegirik ez

zuela iruditzen zaie XJko kideei. Izan ere, bertako kide guztiak ibiltzen dira festen antolakuntzan. Horregatik, otsail aldean, festei begira lanean hasten, deialdi zabala egingo du XJ Auzolanean-ek. Festak, bertako kideak eta gerturatu diren beste guztiekin antolatu dituzte. Gainera, duela aste batzuk, taldeak hainbeste kide dituela kontuan hartuta, egituratzea pentsatu zuten. Talde txikiak egin eta ardurak banatu dituzte: diruzaintza, komunikazioa, aisialdia eta azpiegitura. "Orain arte denok dena egiten genuen, orain ere dena egingo dugu, baina banatuta", dio Felipe Murillo kideak. Taldeka banatuta, bakoitza berearekin biltzen da, eta gero guztiak batera juntatzen dira, tade osoaren funtzionamenduaren berri izateko.

Iniziatiba hartuta

Kantitatez eta kalitatez hobetu dira Xanjuandeiko festak azken urteetan, XJkoek diotenaren arabera. "2008an apustua egin genuen, eskema batzuk aldatu genituen. Zaharrak eta umeak ibiltzen ziren, 14-35 urte bitarteko gazteak falta zirela iruditzen zitzaigun, eta gazteak erakartzen hasi ginen", azaldu du Zinkunegik. Horrela, gazteei ere bideratuta egongo ziren festak antolatzen hasi ziren. Orain, "era guztietako gazteak biltzen" direla dio Murillok.

Auzoari indarra emateko ideiarekin hasi zirenean, bi aukera zeuzkatela mahai gainean



‘XJ Auzolanean’ taldeko kideak, Sanjuandegin duten lokalean bilera egiten. ||| **Aitor Zinkunegi**

uste zuten. Herriko talde eta eragile ezberdinei auzoan ere zerbait antolatzen hasteko esatea, edo beraiek zerbait antolatzen hastea. Bi aukeretan, azkena aukeratu zuten, inori “lata” ematen ibili gabe, beraiek zerbait sortzea hobe izango zutelakoan. Gauza batzuk beraiek bakarrik antolatu dituzte, baina Erniarraitzekin adibidez antolatu izan dute zerbait. Baigerakoekin datorren azaroaren 19rako, kantu-afari poteoa prestatu dute, nahi duenak kantatzera agertzeko gonbidapena zabaldu nahi izan dute, eta baita txartelak salgai daudela esan ere. Beste alde batek, inguruko festa txikiekin harremanak mantentzen dituzte. Urrustilgo, Errezilgo, Martiteko edo Landetako festen antolatzaileekin hartu emana badaukatela diote, beraien moduan lanean ari direnekin alegia.

||| “Kalean bizi den eta Xanjuandegira ia inoiz joan ez denari, auzoaren errealitatea erakustea ere nahi dugu”

AITOR ZINKUNEGI XJ Auzolaneaneko kidea

Herriko gainontzeko taldeekin, aldiz, ez dute hainbesteko harremanik izan. Aitor Altunak dioenez, “hemendik aurrera beste taldeengana jotzen hasi beharko dugu, orain fuer-te baikaude”.

Auzoaren erreferentzia

Festetan jarri zituzten helburuak, pixkanaka betetzen ari dira. Bestalde, auzoaren erreferentzia ere lortu dutela diote. Hau da, Murillok dioenez, jende askok aipatzen dio, auzoari ez zuen zerbait ematen ari direla. Gainera, auzotik kanpokoei bertako egoera erakustea ere lortu dutela diote. Adibidez, “kalean bizi den eta Xanjuandegira ia inoiz joan ez denari, auzoaren errealitatea erakustea ere nahi dugu. Hor gaudela ere erakutsi nahi diogu”, dio Zinkunegik. Altuna eta Murillok diotenez, be-

raiengan ere antzeman dute aldaketa bat. Izan ere, lehen auzoan ez ziren asko ibiltzen, eta gaur egun, zerbait hartzeko edo baten batekin gelditzeko, askotan Xanjuandegin gelditzen direla diote. Hala dio Altunak: “Mugimendua egoten da auzoan, baina zaharrak eta umeak bakarrik”. Murillok, berriz, horri jarraipenik ematen ez bazio amaitu egingo dela gogorazten du. Etxanizek, bizia Xanjuandegin pasa izan duela dio, besteak ez bezala, auzoan asko egondakoa dela.

Auzoarentzako lokalaren gaia oso garrantzitsutzat jotzen dute kide guztiek. Taldearen lokala badaukate, baina alokairuan. Auzoko norbaitek behar izan duenean utzi izan diotela jakinarazi dute, baina, auzotarrentzako lokal bat ere nahiko lukete. Edonork zerbait egin nahi badu lokal bat izatea horretarako. Etxanizen arabera “lokal hau XJ taldearentzat oso aproposa da, auzo erdian dagoelako eta barra daukalako, horrela, dirua ateratzen dugu gastuak ordaintzeko”. Beraz, auzotarren beharrei erantzun liokeen lokal bat behar beharrezkotzat ikusten dute.*



lora-etxea . . .

Kimubat 
ASTE BUKAERAN IREKIA

Azpeitia-Urrestilla Bidea 20730 AZPEITIA Tfnoa.943 150085 www.kimubat.com

LUBA
 aholkularitza
 laborala, fiskala, kontablea


**- AHOHKULARITZA FISKALA,
 LABORALA, KONTABLEA
 - FINKEN ADMINISTRAZIOA**

Enparan kalea, 45


Koh Tao 

OSAGARRIAK

Foru Ibilbidea, 3 • Tel.: 629 688 193
 20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

KIRURI

J A T E T X E A

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
 Tfnoa.: 943 81 66 08
 Faxa.: 943 15 03 62



arte eta dizainu ikastegia

arte 

- **Dibujo eta eskulanak**
(haurrak) 17:30/19:00
- **Pintura** 17:30/19:00
- **Talla** 19:30/21:00

Jose Artetxe kalea, 3
 669 414 025 - 943812808
matrikula urte gutzian zabalik

Eman zure negozioaren berrir Azpeitiko Gidan!

azpeitiko

G I D @

HERRIKO NEGOZIOEN GUNEA



haritz etxeberria 'ministro' |||



||| josu oartzabal 'xenpelar' |||

Adarkadak

Ministro. Zezen Beltz-en asteburua zer iruditu zaik?

Xenpelar. Jende gehiago espero omen zia-ten, baina plazan nahikoa bazegoan.

Ministro. Zer, denak mutilak?

Xenpelar. Beno, esan litekek; begira, dene- tik egoten duk, baina parte hartzen, zezenari paseak egiten... beti mutilak ibiltzen dituk.

Ministro. Zezen Beltzen argazkiak ikusten ibili nauk eta taldekide denak mutilak dituk.

Xenpelar. Zer nahi duk ba izen horrekin?

Ministro. Bai, motel. Hori duk izen beltza dutena. Gainera, arrazista. Zezen beltzak ba- karrik onartzen al ditiztek, ba? Eta, gorriak? Eta, behiak?

Xenpelar. Eta, zer izen ipiniko liokek hik?

Ministro. Ez zekiat ba: *Betizu adarrekin, Adarrekin gozatu, Adarrak beltz* edo horrela- ko zerbait, baina duten argazkia ikusita onena *Adar elkartea* ipintzea.

Xenpelar. Kontua duk herriaren aurrean mutiloi gehiago gustatzen zaigula ausart eta indartsu agertzea.

Ministro. Bai, eta neskei panpox, ezta?

Xenpelar. Bai, nahiz eta lan asko egiten ari diren emakume taldea, berdintasun mahaia... Oraindik horrelaxe gabiltzak.

Ministro. Alde batetik zagok nor izatea, jen- deak edo hire inguruak ezagutzea eta horre- tarako erakutsi beharra diagu. Bestetik, jen- dearen iritzia, ona edo txarra, baina ez deza- tela pentsatu erridikulua egiten gabiltzanik. Horretarako azkoitiarrak nahikoa dituk eta.

Xenpelar. Gizonezkoari ondo zerk ematen ziok? Paparra atera, oilarra izan eta piztien aurrean ez beldurtzea. Neskei, berriz, oilate- giko oilanda ederrena izan, lirain ibili eta pizti handienaren arreta bereganatzea.

||| **XENPELAR.** “Mutiloi ausart eta indartsu agertzea gehiago gustatzen zaiguk”

||| **MINISTRO.** “Neskei, aldiz, oilanda ederrena izan, pizti handiena bereganatzeko”


Ministro. Bale, uste diat biok nahiko ados gaudela. Baina, honi nola eman buelta (ema- tea nahi bazaio)?

Xenpelar. Aurrena, ea konturatzen garen horrela azkoitiarrek baino erridikulu gehiago egiten dugula. Ez gaituk oilarrak eta oilandak, ondo egiten dugunetik egin nahi dugunera alde handia zagok eta behin bizi behar diagu, hainbeste txorakeria ibiltzeko.

Ministro. Hori duk! Horretarako onena erri- dikuluaren zentzua aldatu eta herri osoa ber- tso parrandan ateratzea diagu: protagonis- moa nahi baino gehiago lortzen duk, neskek eta mutilak maila berean, erridikulua zer den ia ahaztera iristen haiz (gu adibide), jendeari nahi duana esateko eskubidea lortzen duk eta suerte pixka batekin egundoko saioa egin eta etxera gustura joateko aukera.✳



Ardoa, zintzurra bustitzeko

Bosgarren urtez jarraian, Ardoaren Eguna izango da azaroaren 6an. Zintzurra bustitzeko guztira, 38 ardo desberdin dastatu ahalko dira, eta jatekoa eskainiz postuak ere izango dira.  Ainitze Agirrezabala

Nafarroako, Arabar-Errioxako eta Errioxako 28 upategik hartuko dute parte, hileko lehen larunbatean izango den V. Ardo Dastaketa Egunean. Upategi bakoitzak ardo marka bat baino gehiago jarriko ditu dastatzeko moduan.

Aurtengo berrikuntza txartelen salmantan egongo da. Ardoa dastatzeko, lau eurotan kopa eta zortzi ardo txiki dastatzeko txartelak eskuratu ahalko dira. Kopak eta txartelak banatzeko postu bat jarriko dute plazan. Urteko ardoak, onduak, kriantzak eta erreserbak dastatzeko parada izango da; guztira, 31 ardo desberdin.

Ardoa dastatzeko postu horiez gainera, jatekoa eskainiz saltokiak ere izango dira. Herriko lau gaztagilek postua jarriko dute eta Gernikako piper erreen pintxo-

DATUAK

Zer. V. Ardo Dastaketa Eguna. **Eguna.** Azaroaren 6a (larunbata).

Ordua. 11:30etik 14:30era bitartean.

Tokia. Plaza Nagusia.

Antolatzailea. Azpeitiko Udala eta Odriozola ardoak.

kin beste bat ere izango da. Horiez gain, iaz bezalaxe, aurtenean GAEL-ek (Azpeitiko Gaixo eta Elbarrituen Aisialdiko Taldea) pintxo beroekin eta hotzekin postua jarriko dute. Postu horietan guztietan pintxo bakoitza euro bat ordaindu beharko da.

Festa giroa alaitzeko, Izer eta Alabier trikitilarien jarduna izango da, ardo dastatzeak iraun bitartean.*

V. ARDO DASTAKETA EGUNA

28

upategi. Nafarroako, Arabar-Errioxako eta Errioxako urteko ardoak, onduak, erreserbak eta kriantzak dastatu ahalko dira.

4

eurotan. Kopa eta zortzi ardo dastaketa egiteko txartelak eskuratu ahalko dira. Jatekoa eskainiz postuak ere izango dira.*



Neska bat herritar bati ardoa ateratzen. II. Ardo Dastaketa Eguneko argazkia da. **Nerea Uranga**

BESTERIK

1 Antzerki Topaketak

Helduentzako eta txikientzako antzerki emandiez gain, kale antzerkia, eskola antzerkia eta antzerki alternatiboa ikusteko parada izango da XXVIII. Euskal Antzerki Topaketetan.

Eguna. Azaroak 5etik 21era.

Tokia. Izarraitz pilotalekua.

Antolatzailea. Azpeitiko Udala.

2 Azpeitiari itzulia

Lehen oinezko bira Azpeitia-Matxinbenta artekoa da, 6-7 ordutan egitekoa. Hilaren 13an, Matxinbenta-Ibarbia auzoa bira, 4-5 ordukoa, eta hileko azken larunbatean, Ibarbiatik Lasao arteko ibilbidea 4-5 ordutan egitekoa.

Eguna. Azaroak 6, 13, 27 (larunbata).

Ordua. 08:00etan. **Tokia.** Plaza Nagusia. **Antolatzailea.** Azpeitiko Udala.

3 XV. Mendiko Argazki Rallya

Martiten irten eta Izazpi bidean joanda, goraino igo gabe, atera beharko dituzte argazkiak parte-hartzaileek, pare bat orduz. Parte hartzeko izena egunean bertan eman beharko da Argazki Elkartearen bulegoan 09:00etatik 09:30era.

Eguna. Azaroak 7 (igandea).

Ordua. Goizean zehar.

Tokia. Martite ingurua.

Antolatzailea. Lagun Onak M. B. eta Argazki Elkarte.*

Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: uztarria.com/agenda

Azpeititik kanpora bizi bazara ere
jaso zure etxean herriko berri hileroko-hileroko



uztarria
uztarria@uztarria.com
943 15 03 58

SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNAK

●	K	V	O	N	●	V	T	R	V	T	●
K	V	I	G	E	T	I	R	V	N	V	J
I	V	A	T	Z	●	K	V	I	B	U	●
●	D	V	●	E	N	E	●	Z	T	N	V
O	L	R	V	●	I	●	V	E	I	L	●
A	D	V	A	R	B	A	R	B	A	K	A
V	A	O	I	O	A	N	D	E	N	G	●
S	R	●	N	U	R	L	V	●	●	●	●
K	A	R	I	Z	I	D	U	N	A	K	●
●	J	●	T	●	N	●	B	●	●	●	●



HITZ GURUTZATUAK

V	U	T	V	L	I	U	K	V	A	N
O	●	K	V	K	Z	V	A	N	A	●
I	S	I	E	R	A	U	●	●	●	●
R	V	A	R	U	R	T	●	●	●	●
V	A	L	A	K	●	V	A	●	●	●
N	U	D	●	I	L	O	I	●	●	●
E	X	●	N	V	A	●	H	O	●	●
Z	●	R	●	L	O	●	●	●	●	●
V	A	R	I	A	●	●	●	●	●	●

ZER DAGO SOBERAN, ZER FALTAN?



|||ARGAZKI LEHIAKETAN ERANTZUTEKO EPEA. Azaroak 22 (astelehena) |||NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia ||| IRABAZLEARI SARIA. Odriozola upategiko ardoak |||PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da |||ZER DAGO SOBERAN/////ZER DAGO FALTAN.

|||ZURE IZEN-ABIZENAK

|||TELEFONO ZENBAKIA

UZTARRIAREN URRIKO ARGAZKI LEHIAKETA

ZEIN DA?



JOSE LUIS FRANTZESENA



IRABAZLEA



Joxe Antonio Esnaola Uztarriako bazkidea izan da lehiaketako 121. irabazlea. Odriozola upategiko ardo sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, Joxe Antonio, saria eskuetan duela.

ODRIOZOLA ARDOAK

ardoetan aukera zabalena
bertako produktuak eta gutxiak

Iñaki Azpiazu, 5 - Azpeitia - Tel. 943 15 13 16

Axiri poligonoa, 10 - Azkoitia 943850059 / Aitzuri kalea - Zumaia 943860103



Hirugiharra

Txerri haragiaren zati bat da, atunaren mendreska edo gure sabel aldeko giharren antzekoa. Gihar zati horiek gantza betak dituzte eta sabeleko hormaren zatirik garrantzitsuen osatzen dute.

Harategietako kategorien sailkapenean mailarik baxuenean dago. Txerriak duen pisuaren %5a besterik ez da. Freskoa denean, neurrizko estimazioa du; baina, kontserban errespetu handia sortzen du.

Haragi oso ona da, baina gizen edo zahar konplexurik gabeko pertsona osasunentzat. Motel liseritzen da eta ez da gehiegi edo azkar jan behar.

Gatza, piperra edo beste erasagarriak izan ditzake. Ia %90 da jangarria. 100 gramok 400 kaloria ditu, bost arrautza egosik bezala. %45 koipe du, kakahuteak bezala. Sodio asko du, aurretik ondutakoa delako. Kontutan izan behar dute tentsio altua dutenek, ez da ona haientzat. Bitaminaz pobrea da.

Badakigu gatza beharrezkoa dela bizitzarako, baina elikagaiek dutena nahikoa da gehiago erantsi gabe. Beharrezkoa delako, likidoen eta gatzaren kopuru egonkorra mantendu behar dugu. Gatz asko kontsumitzen badugu, gorputz barruko ura gehitu eta, ondorioz, odolaren tentsio a gehitu eta bihotza nekazten dugu. Orkatilak puztu egiten dira eta gaixotu egiten gara.*



||||||| **Julian bereziartua** |||||

JAIONE UZIN bankaria



1. Eurotan ala pezetetan pentsatzen dugu?

Pezetetan; gazteek eurotan.

2. Lanbidearen onena?

Bezeroak.

3. Gehiena, euskaraz ala erdaraz?

Euskaraz, idatziak-eta erdaraz.

4. Okerrik kontuak koadratzerakoan?

Bai, 100 eurokoa.

5. Mailegu gehien zertarako?

Autoa eta etxea erosteko.

6. Bitxikeriarik?

Multak hemen ordaintzen direnez guztien berri dugu.

7. 2011: beltza, arroxa?

Grisa. Hobera egingo du.

8. Bankari ez bazina?

Lan arriskuen prebentzio teknikari.

9. Jende gehiena noiz?

Astearte goizetan eta hil hasieran.*

📧 **Julene Frantzesena**

AZKOITIA
ERLOJU KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

Amenabar
DENDA
gortinak, ohazalak,
edreoi nordikoak ...
Eliz-kale, 32-behea - Telf/Fax: 943 15 06 97

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40
Ekain
Larrialdiak: 943 15 16 40
ALBAITARI KLINIKA

JAZKI moda
Jose de Artetxe 10
Tlf: 943 81 17 69

PEUGEOT
AIZPURU AUTOAK
Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA
aizpuru@aizpuru.net

ostadar optika
OPTOKAK - OPTOMETRISTAK
Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA
Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

lentzeria mertzeria
jose artetxe, 16
nabar

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"
URBISTONDO MARGOAK
Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

domusa

|||BLOGAK|||||

Aluminiozko papera

Krisia dela eta jende batek mokadua jan ondoren aluminiozko papera kurioso tolestu eta etxera eramaten omen du berberabiltzeko. Hori ez gustatzen zenbaiti: "horreaino ailegatzea ere".

(...) Besteei xurra hots egitean gu hain mixerableak ez garela pentsatuz arro ibiltzen gara sarritan. (...) Eskuzabal itxurako jokararak, batzuetan, besteen aurrean ongi geratzea besterik ez dugula nahi ezkutatzeko, benetan barnetik pairatuz egiten ari garenak sortzen digun sufrimendua.

Nire uste xumean, gauza desberdinei ematen diegula balioa, edo gauza berdinei balio desberdina ematen diegulako sortzen da oreka ezin hori. Eta gauzak baloratze horrek gustuekin zerikusi handia du. Ondorioz, denok gara xurrak arloren batean.

Diru-iturria mugatua dugunok lehentasun batzuk ditugu hori ad-

|||Zer da xurra izatea? Bizitzako helburu denak eta bakararra dirua pilatzea izatea

|||INKESTA|||

2011rako Tabakoaren Legea egokia iruditzen?

Bai. %67,13.

Ez. %26,57.

Ez dit axola. %6,29.

|||Oraingo galdera. Bertso Parrandako saioetara joango al zara?

ministratzeko eta gure eskematik ateratzen denari "nola laike" esaten badiogu, berak "hau xurre" erantzungo digu. Parrandazale bati gau batean 30, 40 euro gatzatea normala irudituko zaio eta zalea ez den bati astakeria. (...) Bizimodu arruntean, batzuk bezperan sobratutako ogia aprobetxatzen dutelako, kleenexak erditik zatitzen dituztelako... Askorentzat bat xurra izango da. Enpresa munduan, berriz, kostuak ahalik eta gehien gutxitzea da helburua. Horri ez zaio xurra deitzen; lehiakorra izatea, baizik.

Zer da ba xurra izatea? Nire uste apalean, bizitzako helburu denak eta bakararra dirua pilatzea besterik ez izatea. Adituen arabera jende hori bere dirua nola aurrezten duten kontatuz eta kontatuz zoriotsu omen da.*

|||||||josu badiola|||

|||EFEMERIDEAK|||||

1630

Italian izurritea zabaltzen. Arerioak ekarri zitzaizkela-eta, herrian guardiak egitea erabaki zuten, atzerritarrei eta ingurukoiei herrian sartzen ez uzteko.

1642

Sagar gutxiko urtea. Sagardo zaharrak saltzea erabaki zuten, urtekoak salgai jarri aurretik.

1670

Ahariaren tokian ardia. Kexa zen herrian, harakinak ahariaren tokian ardia saltzen zutelako - azken horren prezioan, gainera. Herriko fidelari gertatzen zenaren berri jakiteko agindu zioten, zigorra ezartzeko.

📍 **Iturria:** Azpeitiko efemerideak. Herria historian zehar liburua.

|||Egilea: Imanol Elias Odriozola.

|||Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinakundea.*

www.uztarria.com

azpeitiko ataiye

|||eguneko albisteak |||irakurleen erantzunak |||eguneko argazkia |||bideoak |||blogak |||inkesta |||agenda |||bitxikeriak
|||'azpeitia' atala: zerbitzu publikoen ordutegia, autobusen ordutegia, telefono zenbakiak, euskara atala, farmaziak, festak, hauteskunde denetako emaitzak, geografia, panoramikak, herriko taldeak, liburuak osorik... |||uztarria herri aldizkari denak; PDF formatoan ere bai |||eguneko efemerideak |||gida komertziala...

|||sartu sarean, eta hartu parte |||egunero **7.000** orrialderen bisita



Uniformerik gabe

Udaltzainburu lanean gizon serioaren planta badu ere, adarra jotzeko makina sarri-sarri martxan jarri zalea da Jose Anjel Aristi. 📌🎧 Ainitze Agirrezabala

Udaltzain uniformearen jantzita, aurpegia eman eta jendeari legeak be-
tearazteko duen arduragatik da herrian eza-
guna Jose Angel Aristi (1959). Oraingo honetan,
ordea, borra, txilibitua eta isunak bete-
tzeko libreta alde batera utzita, bere
ohiko eginkizunetatik kanpo zer egitea
gustatzen zaion kontatu eta bizitzako pa-
sadietaz hitz egin du Uztarriarekin.

Jaiotzez urrestildarra, Sinberguentza zu-
bitik gora Kaleaundian dagoen Ezama etxean
jaio zen. Bost anai-arrebetan zaharrena izan-
nagatik gainontzeko senideak zaintzea ez zi-
tzaiola tokatu dio: "Txikitan emakume batek
zaintzen ninduen eta kozkortzean ere, etxeko
lanik batere ez genuen egiten. Zero. Ama eta
etxean gurekin bizi zen izeba alarguna ardu-
ratzen ziren horretaz. Jan eta azkar kalera.
Garai batean, gure etxearen behealdean at-
titte Manuel zenak taberna bat zuen. Nire
aitak esku bat botatzen bazion ere, tailerrean
egiten zuen lana eta ni jaio eta berehalaxe itxi
zuten. Han geratu zen lokala, eta atititek al-
pargata zoruak josten jarduten zuen, baina ez
nuen ikasi ofizioa".

Ume gehienak bezala, denbora nolabait
pasatu behar eta kalera irtenda sesuman
ibiltzen zen. "Gu beti okerra egiten. Sagarrak
harrapatzen, intxaurrak, mahatsa... Ezpatak
eta geziak egin eta indioarena egiten ibiltzen
ginen. Urrestillan, garai batean, otarrak egite-
ko zumitz soroak ziren eta han sartzen ginen,
zumitza moztu eta geziak egiteko. Soroaren



nagusia atzetik genuela han ibiltzen ginen".

Hiru urterekin Urrestillako eskolara hasi
zen. "Gogoan dut, maisuari gustatzen ez
zitzaien okerren bat egitean eskua jarri
arazten zigula, egurrezko erregelarekin
emateko. Ez dut uste, ordea, neu hartuta-
koa naizenik. Txintxo samarra izango nint-
zen, nonbait". Eskolan ikasle "ona" zela
dio. Institutuan batxilergoa eta UBI egin eta,
Arrasaten ingeniari tekniko-mekanikoa egi-
ten hasi zen. "Ikasle-egoitzan pasatzen nuen
astea eta ikasketen zatirik handiena guraso-
ek ordaintzen bazidaten ere, xoxa batzuk ate-
ratze aldera hango kooperatiba batean egi-
ten nuen lana ordu batzutan. Aurreneko urtea
atera nuen, baina ikasketak gero eta gogo-
rragoak ziren eta adin horretan parrandarako
gogoia ere bai eta karrera utzi nuen". Danona
eta Zubiolan lan ebentual batzuk egin eta
soldaduskara joan zen Colmenar Viejora,
Madrilera. "Makinan idazten zeinek zekien
galdetu zigun kapitainak eta nik eskua altxa
nuen. Ez nekien oso ondo, bi behatzekin egi-
ten nuen, baina balekoa eman zidaten".

Dantzalekuen zalea

Gaztetan, ikasteko baino amorru handiagoa
zuen antza, juergarako. "Gure gazte garaiak
Eganen garaiak ziren eta makina bat herrita-
ko festetan izan ginen. Txixxarora joan zaleak
ginen, baita Itziarko Mandiope eta Tolosako
Gure Txokoara ere. Auskalo zenbat bikote

|||MOTZEAN|||||

GALTZEKO LEKU BAT?

Urrestilatik Aratz-Errekarako bidean edozein txoko.

EGUNA ZERK POZTEN DIZU?

Lagunen batekin berriketaldi batek, adarjotze pixkatek...

ZERK GARRAZTEN?

Jende harropuzak, errespetu eta edukazio faltak.

AMETS BAT?

Donejakue bidea egitea.

EDARI BAT?

Garagardoarekin afaltzen dut, egunero.

KANTU BAT?

Kantu bat baino, instrumentu bat: gaita.

FILME BAT?

Clean Eastwooden edozein, *Harry el sucio* edo.

UDALTZAINGO EZ BAZINA?

Tailarren bateko langilea.

OROITZAPEN BAT?

Alaba jaiotzen ikustea, hunkigarria da oso.



1. Aristi eskubikoa da, 8 urterekin. **2.** Ezamatarrak urtean behingo karakol janean. **3.** Ama Lurdes eta senideekin, ezkerrekoa da Aristi, 2 urterekin. **4.** Alaba Aintzanerekin, Odriatik gora ateratako argazkia da.

sortu ziren han!". Neskalaguntza asko egin-dakoa den galdetuta, "termino medio", erantzuna: "Ahal zuenak, ahal zuena". Anoetakoa du emaztea. "Berastegin ezagutu nuen, Eganen erromerian". Batetik bestera ibiltzeko ko-adrilan bakarren batek kotxea bazuela dio, eta, bestela, stopean. "Orduan ez zegoen orain adina erraztasun".

'Merengoia' ere bai

Futbol partida bat hasi eta bukatu, osorik ikustea kostatu egiten zaiola adierazi arren, bi talde kuttun ditu. "Aurrena Real", dio. Baina, 'merengoia' ere bada... "Biak elkarren kontra jarriz gero, Realaren alde. Ez dakit nondik sartu zaidan, baina txikitatik Real Madrid zalea naiz. Benito, Gento... jokalarri histo-

rikoak ziren eta sona handia zuten nire gazte garaian".

Futbola ez ezik, motor mundua ere jarraitzen du: "1 Formula eta motoziklismoa asko gustatzen zaizkit. Alonso eta Pedrosa zalea naiz. Espektakulu hutsak dira". Aristi bera gaztetan motorrean ibilitakoa da. "Urrestilatik lanera aitak utzitako Vespa berde batean ibiltzen nintzen. Anaia Pakok, ordea, hartu zuen behin Zumaia aldera joateko eta gurgpila zulatu eta han utzi zuen bide bazterrean. Bila joan zenerako motorra falta. Ljitoren batzuke... adios gure motorra!".

Ikusle bezala gustuko dituen kirolak dira horiek. Ariketa fisikoa egiteari dagokionez, ibiltzea du gustuko. "Azkoiti alderako buelta sarritan egiten dut, batzutan bide-gorritik,

Karakoljana

|||Attite Manuel zenak familiara ekarritako ohitura da urtero egiten duten karakoljana. Aristitarrak amorratuak dira oso. "Munduko zerarik onenak dira, angulak baino askoz hobekak". Iraila bukaeran Aristi berak bildu zituen, urriko bigarren asteburuan familia osoa mahaiaren bueltan elkartu eta gozatzeko: "Mordoska bildu nuen, pare bat hiru bat kilo bai. Euria, hezetasuna behar du karakolak biltzeko. Gero, hiru bat astean sekatzan edukitzen ditut, moko asko izaten baitute. Biltzeko, ordea, ez da inor izaten, neu bakarrik. Lekua ezin dut esan, bestela jendea hara joango da eta urtetik urtera zailagoa da biltzen". Familia guztiarentzat karakolak prestatzeko ardura Aristik du: "Orain arte, amak prantatzen zituen, baina aurren nik hartu dut konpromisoa. Amari eskatuta errezeta ordenagailuan dut". Karakolei bultzatzen lagutzeko "ardo beltz on batek ezin duela falta" adierazi du.

bestetan abenidatik. Gehiago nekatu nahi badut, berriz, tarteka, Kukuerritik edo mendi bueltaren bat ere bai". Paseatzen hasi aurretik, ordea, bizikletarekin ere izan zuen esperientziarik: "Mendi-bizikletarekin ibiltzeko be-roaldia izan nuen eta hala erosi nuen. Behin Urraki aldera abentatu nintzen eta, beste batean, Aratz-Erreka bidean Altsasu baserrira dagoen aldapan goraino igo nintzen. Kristoren aldapa zegoen! Bizikletarekin maldan gora ibiltzea nekoso da oso, gogorra. Aspaldian ez naiz ibili eta han dago garajea, erdoia hartzen".

Tituluarekin akordatzen ez bada ere, irakurri duen azkena soldaduskara eraman zuen euskarazko liburuak izan zela gogoan du. "Pentsa, orain dela 30 urte ia. Anaia [Pako] idazlea dut, baina liburuak irakurtzeko ohiturarik ez dut. Literaturarekiko zaletasun guztiak harek eraman zituen. Periodikua bai, egunero. Gara, Diario Vasco... Lantokian egunkari mordoa jasotzen ditugu. Goenkale eta halako telesailekin "aspertu" egiten dela dio: "Keba, keba... Horiek batez. Natura-dokumental bai, krokodiloak eta Afrikako oiha-nak-eta. Horiek gustura".

Duela 28 urte, udaltzain hasi zenean, lan hura ez zela betiko izango uste zuen, momentuko zerbait zela. "Baina, honezkero hemen jubilatuko naiz. Noski, gaur egun funtzionarioa izatea pribilegioa omen da eta hemendik aurrera dagoenari heldu eta aurrera. Orain ez dago gauza lagatzeko moduan, aizu!".*

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	083780
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Azaroaren 24an izango dute hitzordua, 18:00etatik 21:00etara, anbulatorioan.

Hautetsi Independentistak	15 72 00
EA	81 00 11
EB-Aralar	15 72 00

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbian.)	273 posta
Xoxoteko aterpea	58 10 07

Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzua

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 55 70	943 08 06 88
-----	----------	--------------

FARMAZIAK (AZAROA)

EGUNEZ

1-5-11-23	2-6-7-10-22-27-28-30	3-12-24
Alberdi (Azpeitia).	Beristain (Azpeitia).	Eizagirre (Azpeitia).
943 815974	943 811949	943 811274

GAUEZ

1-2-3-4-5-6-7-29-30	8-15-16-17-18-19-26	9-10-22-27-28
Eizagirre (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).	Gisasola (Azkoitia).
943 811274	943 811350	943 851235

ORDUTEGIAK

UDALETXEA || Asteguna: 09:00-13:30 || Larunbata: 09:00-13:00 **UDALTZAINGOA** || Egun osoz irekita egoten da **ANBULATEGIA** || Egun osoz irekita egoten da **IGERILEKUA** || Astelehena: 14:00-21:00 || Beste astegunak: 07:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 || Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 || Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita **KIROLDEGIA** || Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 **UDAL LIBURUTEGIA** || Astegunak: 10:00-13:00, 16:00-20:00 || Larunbata: 10:00-13:00 || Udan, Gabonetan: 08:30-13:30 **ZAPO TXOKO** || Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 || Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



▲ KULTUR AGENDA.

Urrikoa izan da Lapikue Azpeitiko Kultur Mahaiaik atera duen eskuko agendaren lehenengo zenbakia. Hilero argitaratuko dute eta mila ale banatuko dituzte, leku publikoetan eta tabernetan.

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 27 18
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

|| autobusen ordutegi osoa:


www.uztarria.com/azpeitia/
autobusak

1-2-3-4-5-6-7-29-30	8-15-16-17-18-19-26	9-10-22-27-28	11-23-24	12-25	13-14-20-21
Eizagirre (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).	Gisasola (Azkoitia).	Ruiz (Azkoitia).	Jaen (Azkoitia).	Azpiazu (Azkoitia).
943 811274	943 811350	943 851235	943 851966	943 850660	943 852989

ROSANNY FELIZ

Dominikar Errepublika, Barahona

“ zaiLa dun, baina gogoarekin ikasi egiten dun euskara ”

Dominikar Errepublikan azpeitiar batekin maitemindu eta hona etorri zen. Euskaraz ederki ikasi du.  Ainitze Agirrezabala

Nolatan bizi haiz Azpeitian?

Urtarrilean hiru urte egingo dizkinat Azpeitira etorri nindunala. Gurasoak bananduta zauzkanat eta izatez Barahonakoa banaun ere, amarekin Bocachicara joan nindunan bizitzera. Han, taberna batean egiten ninan lana, zerbitzari, eta bertan ezagutu ninan orain nire senarra dena, oporretara joanda baitzegoan. Urte betean telefonoz mantendu genin harremana. Gero, berriro joan hunan Dominikar Errepublikara oporretara eta, orduan, semea hartu eta hona etorri nindunan.

Erraz etorri al hitzanan?

Bai, han ez dinagu egon nahi. Lan gutxi zagon, ikasketak familia onekoek bakarrik ditizten. Desberdintasun handia zagon. Gutxi batzuk asko diton, eta gehiengoak ezer ez.

Zer moduz integratu haiz herrian?

Oso ondo. Semeak, Ronnyk, sei urte ditin eta azkar ikasi zinan euskaraz, ikastolan. 'Nik euskara ikasi dut eta orain amatxok ikasi behar du', esaten zinan. Ailegatu eta hilabetera AEKn hasi nindunan. Garrantzitsua dun euskara ikastea, seme-alabekin eta jendearekin hitz egiteko.

Ederki asko egiten dun euskaraz...

Zaila dun, baina gogoa jarriz gero ikasten da. Bizitza osoa Azpeitian daramaten extremadurar askok ez zekiten 'bai' hitzak zer esan nahi duen ere, eta harritu egiten ditun euskaraz nola egiten dudan ikusita. Euskara batua ikasi dinat eta senarrari ez zionat askorik ulertzen, azkar hitz egiteaz gain, azpeitiarrez hitz asko moztu egiten baitizkin.

Nolakoak ditun azpeitiarrak?

Mutilen aldean neskak irekiagoak ditun izaeraz. Osiñazpira afaltzera datozen bikoteetatik hitz egiten dutenak neskak ditun.

Familia bisitatzera joan al haiz jaioterriera?

Alabak, Oihanek, urtebete din, hemen jaioa dun eta nire gurasoek argazkitan ezagutzen diton. Aita eta amaz gain, bi ahizpa eta anaia ditinat han eta asko botatzen dinat faltan familia.

Inguru hauetan zer gustatu zaidan gehiena?

Mendia ikaragarri gustatzen zaidan. Askotan joan izan naun Erniora eta Xoxotera; tarteka, baita Txindoki eta Aizkorriera ere.✳



1. Osiñazpi jatetxean lanean. 2. Euskaltegiko lagunekin. 3. Alaba Oihaneren urtebetetze egunean, gizonaren aldeko familia agertzen da.



Postala Habanatik

Goizean goizago jaikitzen naiz, eta lehenengo jende zarata eta argiarekin irteten naiz kalera, kamera bizkarrean. Lehenengo argiak argitzen dizkidanak jasotzen ditut argazkietan. Kale bazterren bat orain, teilaturen bat gero, ikasleren batzuk hurren. Ez ditut argazkirik onenak. Goizeko erronda hori ordubetean egin eta gosaltzen dut. Ezagutzen ditudan eta ez ditudan fruta suerte guztiak jartzen dizkit Raulek –ostatuko nagusiak– platerean, eta ez dakit haien izenik zuzen ematen ere, anana, mangoa, papaia eta guaiabarena ez bada.

Jendea ageri da beti kalean. Goiztar, andrezkoak, etxeko andreak esan beharko nuke, eguneroko afanean, etxekoei jaten zer emango. Ageri denez, ez dago aukera handirik eta beti bat eta bera da hemengo jende xehearen platerean: arroza, babak, oilasko pusketa batzuk eta ahukatea, platanoa edo antzekoren bat, dena plater berean. Congrí izena ematen diote. Eta beti da kongri, egunean bitan eta astean zazpi egunean. Jakina, leku guztietan zakurrak oinutsik, hanka-hutsik, eta badira batean eta bestean diren jatetxeetan bestelakorik jaten dutenak ere. Ezta pentsatu ere turistak kongririk jaten duenik. Jatekotan ere, hainbat izarreko hotelak “janari tipikoa” eskaintzen duen egunean izango da. Vancouverreko lagunak Beizamara eramatea bezala, baba gorriak jatera, azak eta odolkia aldamenean dituela. Horrela da mundua, han eta hemen. Hori ez da nobedadea.

Bada euskaldunik

Habana Erdetik ari naiz, horko ikuspegi bat –neuk bizi dudana– ematen. Aguila kaleko estatutik txinatarren auzora bidean ikusten ari naizena. Giroa bestelakoa da Habana Zaharrera abiatu izan banintz. Ez dakit non diren gizonezkoak. Zertan ari diren. Poliziak kale kantoietan, gazte bizargabeak, hemen bat, han beste bat... Muturbeltzak. Irribarrerik ez aurrepigeran. Taberna atarian jarrita nago ha-



|||||||miel a. elustondo||||

|||Atzaparka bat euskaldun bada oraindik hemen. Baina, kito da iraultza aurreko euskal komunitate handia

marrak baino lehen. Ura edan behar ordurako, eguzkia galgan joka dator eguneroko. Liburu atera, koaderno, telefono eta helbideak... Jose adiskidearen zain nago. Elkarrizketa asmoa dugu gaur ere. Atzaparka bat euskaldun bada oraindik hemen. Gerrak Errusiatik barrena ekarritako hurrak dira batzuk, errefuxiatu politiko berriagoak beste batzuk. Bada gure auzokorik, baina kito da iraultza aurreko euskal komunitate handi hura, Centro Vasco inguruan biltzen zen hura, Inazio Olarreaga Gerri pilotariak ezagutu zuena... Adinekoak dira euskaldunak, eta akabo izango da hauek hiltzen direnean. Kuban geratzen zen azken frantziskotar euskalduna ezagutu nuen duela hiru urte. Ez dago hemen, Errioxako komentu batean baizik...

Etorri zait laguna. Joateko garaia dugu. Hobe dugu mugitu. Arratsaldean ekaitza izango dugula agindu dute, eta hemen euria botatzen hasten duenean, “liburu sainduko uholak” izaten dira. Bagoaz, beraz, igeri alde egin beharra izan baino lehen.

Habanatik, bihotzez...✳



iberotarren plaza 4 behea
20730 azpeitia gipuzkoa
t. 943 81 44 50
f. 943 81 50 52

'zure irribarra zaintzen dugu'

www.grupohorzkari.com

heldu uztarriaren amuari



Uztarriako komunikazio proiektuko bazkide egin zaitezke, eta horrekin, gure proiektu hau zeure ere egin. Oso erraza da.


izen-abizenak:

helbidea:

enxa edo nan zenbakia:

telefonoa:

kontu korrontea:



Santi Lazkano Kirolak

udazkena negua 2010

Jose Artetxe, 1 Tel/Fax: 943 81 16 50



Ukabi
informatika

TEL.: 943 15 01 01
Salbe auzoa, 39 behea
20730 AZPEITIA



eskaintza ezin hobekak
zure aurrezkiak salbu
dira gurean



ACER ASPIRE 5734Z

- Intel Pentium Dual Core T4500, 2.30GHZ
- RAM Memoria 4GB DDR3
- Disko gogorra: 320 GB
- Txartel Grafikoa: Intel GMA 4500 64Mb dedicada
- DVDRW txartel irakurlea
- Windows 7 Home Premium
- Pantaila: TFT 15.6" + webcam

499 euro
b.e.z. barne